


Abenduak 18: Migratzaileen Nazioarteko Eguna


Euskadin erroldatuta dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazte atzerritarren kopuruak behera egiten du

Migratzaileen Nazioarteko Eguna dela-eta, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k atzerriko nazionalitatea izanik, Euskadin erroldatuta dagoen atzerriko biztanleria gazteari buruzko datuak aurkezten ditu. Datuok EUSTAT dute iturri.


Biztanleen udal-erroldaren Estatistikaren datuen arabera, 2015an atzerriko 15 eta 29 urte bitarteko 36 246 lagun zeuden Euskadin erroldatuta. Horietariko 18489 emakumeak ziren; gizonak, ostera, 17 937 ziren. 2012tik beheranzko joera antzematen da eta azken lau urtetan 10 000 lagun inguru behera egin du.



Gazte atzerritarrek Euskadiko gazteen artean duten pisua ere 2012tik beheranzko joera du. 2012an % 15,1ekoa bazen, 2015ean %12,7ko pisua dute gazte atzerritarrek.



Azkenik, Euskadin erroldatuta dagoen atzerriko biztanleriaren gazteen indizea aztertuko dugu. Indize horrek neurtzen duena zera da: biztanleria jakin batean dauden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen portzentajea. Euskadin bizi diren atzerritarren laurdena baino gehiago (% 24,9), 15 eta 29 urte bitarteko gazteak dira.



Gazteen Euskal Behatokiaren [Estatistiketan](#) **Biztanleriari** eskaintzen zaion atalean, aurki daitezke datuak.